



Lehiaren Euskal Agintzaritza COVID-19aren aurrean

Arreta berezia jarriko du merkatuen hornikuntzan eragina izan dezaketen
jokaera posibleen aurrean

Gehiegizko prezioen ezarpena edo operadore ekonomikoen arteko beste
akordio batzuk zainduko ditu

BILBON, 2020ko martxoaren 18an/ Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA/AVC), COVID-19ak eragindako egungo osasun krisi egoeraren aurrean, arreta berezia jarriko du merkatuen hornikuntzan eragina izan dezaketen jokaera posibleen aurrean.

Halaber, kolusiozko edo lehiaren aurkako jardunbideak izan daitezkeenak zainduko ditu, Gehiegizko prezioen ezarpena edo operadore ekonomikoen arteko beste akordio batzuk, besteak beste.

Herritarrak, edozein informazio garrantzitsuren berri izanez gero, www.euskadi.competencia.eus webgunearen bitartez jarri ahal izango dira harremanetan Lehiaren Euskal Agintaritzarekin

Lehiaren Euskal Agintaritzari buruz

Lehiaren Euskal Agintaritzak, administrazio izaera duen erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailari atxikia, eta erakunde eta funtzio autonomia du bere eginkizunak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoan. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduerak ekonomikoetarako dagokienez.